

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MENDEBALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Uriarte bidea hobetzea eta zabaltzea Olabezarren, Aiarako udalerrian (Araba)

Espediente-zenbakia: AO-B-2020-0415.

Eskatzailea: Olabezarreko Administrazio Batzordea.

Jarduera honetan, Olabezarren Uriarte bidea hobetu eta zabaldu nahi da, bi aldiz gurutzatzen baitu izenik gabeko jariatze baten jabari publiko hidraulikoarekin, Aiarako udal-mugartean (Araba).

Iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, jendeak horren berri izan dezan ematen da aditzera hau, eskatutako baimenarekin kaltetutzat jotzen direnek beren erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, epe horretan, Bilboko Urkixo zumarkaleko 36. zenbakian (Bizkaia Plaza eraikina, 7. solairua) dauden bulego hauetan. Bertan, espedientea agerian egongo da.

Bilbon, 2021eko urriaren 15ean

Obra-baimenen arduraduna

MARIA JOSÉ GUERRERO VERDEJO